

**EUSKADIKO 2014-2020 EGEF PROGRAMA ERAGILEAREN  
PROPOSAMENA JENDAURREAN JARTZEA**

Eusko Jaurlaritzak Euskadiko 2014-2020 aldirako EGEF programa eragilearen proposamena igorri behar dio Estatuko Administrazio Orokorrari datozen egunetan, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak Europako Batzordeari uztailaren 22a baino lehen igor diezaion.

Herritarren aldetik oro har egokitzen jotako iritziak eta oharrak bildu nahi dira jendaurreko jakinarazpen horren bitartez; izan ere, Europako Batzordeko Eskualde eta Hiri Politikaren Zuzendaritza Nagusiarekin irekiko den negoziazio-prozesu formalaren barruan hartuko dira kontuan horiek, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak aipatutako proposamena igortzen duenetik aurrera.

Euskadiko 2014-2020 aldirako EGEF programa eragilea dokumentuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoan esku hartzeko estrategia eta helburu tematikoak zehazten dira, 2014-2020 programazio-aldi berrirako, Eskualdeen Europako Funtsez (EGEF) kofinantzatutako jarduerari dagokienez, bai eta helburu horientzat programatutako finantza-zuzkidurak ere.

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailak osatu du Euskadiko 2014-2020 aldirako EGEF programa eragilearen proposamena, hiru foru-aldundiekin elkarlanean, bai eta Estatuko Administrazio Orokorrarekin zein Batzordeko zerbitzuekin eta EAEko eragile eta solaskide garrantzitsuenekin batera ere. Hori guztia 1303/2013 zenbakidun Xedapen Komunen Erregelamenduaren 5. artikulua (Elkartzea eta gobernantza hainbat mailatan), haren orientazioak zein dokumentu estrategikoaren aurreko bertsioei eginiko oharrak aintzat hartuta, eta programa-dokumentuaren zirriborroa aplikatzeko esparruaren barruan.

Horrez gain, aipatutako erregelamenduaren 96. artikulua aplikatuta, Batzordeak programa eragileentzat, 288/2014 (EB) Betearazpen Erregelamenduaren hazkundean eta enpleguan inbertitzeko helburuaren esparruan, ezarritako ereduaren arabera egituratu da programa hau.

Erkidegoak EAEn esku hartzeko, 2014-2020 programazio-aldian, dauden behar nagusiak zehaztu dira, Europako Esparru Estrategiko Bateratuari dagozkion funtsak kudeatzeko Euskadiko Esparru Estrategikoan egindako egoeraren gaineko diagnostikotik abiatuta, eta Europa 2020 Estrategiaren helburuak zein Kohesio Politikoaren esku-hartze helburu tematikoak oinarri hartuta, betiere.

Hauxe hartzen du kontuan programak: 1) EGEF funtserako Erkidegoko erregelamenduak, eta zehazki, esku-hartzeen pilaketaren arloan xedatutakoa, eta 2) Estatuko elkarte-hitzarmenean xedatutakoa eta Erkidegoko funtsen arteko beharrezko koordinazioa.

Euskadiko 2014-2020 aldirako EGEF Programa Eragileak erregelamenduan aurreikusitako hamaika helburu tematikoetatik (HT) seitan pilatzen ditu esku-hartzeak funtsean, eta zehazki, hazkunde adimentsua lortzeko lauetan (1. HT: I+G+B, 2. HT: IKTak, 3. HT: ETEak, eta 4. HT: karbono-isuri baxuko ekonomia). Esku-hartze osagarriak daude, halaber, 5. HTn (arriskuen prebentzioa eta kudeaketa) eta 6. HTn (ingurumena eta baliabideen eraginkortasuna) hazkunde jasangarria lortzearren.

Xedapen Komunen 1303/2013 (EB) Erregelamenduaren 55. artikulua *ex-ante* ebaluazio bat eskatzen du programa guztientzat, haien diseinu-kalitatea hobetzeko. Ebaluazio hori Batzordeari igorri behar zaio programa-proposamenekin batera, eta programa guztiak baloratuko ditu horrek onartu aurretik (26. artikulua).

Euskadiko 2014-2020 aldirako EGEF Programa Eragileak ingurumen-ebaluazio estrategikoa ere bete behar du, orobat; horri dagokionez, apirilaren 28ko 9/2006 Legeak, plan eta programa jakin batzuek ingurumenean daukaten eraginaren ebaluazioari buruzkoak, 45 eguneko epea irekitzea jasotzen du izapideen artean, jendaurrean jartzeko eta kontsultak egiteko. Ingurumen Agintaritzarekin hitz egin ostean, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozesua hasteko dokumentua igorri zion Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzari maiatzaren 30an. Programa eragilearen Ingurumen Jasangarritasuneko Txostenaren jendaurreko kontsulta 2014ko irailean egitea dago aurreikusita prozesu horretan.